



FELIX IRAZUSTABARRENA ▶ BERTSOZALEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA


«Kantitatea baino kalitate handia dago aurtengo txapelketan»

ALEGIA ▶ Hasi berri den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzen aritu da alegiarra

ESKUALDEKOAK ▶ «Presentzia handia dago, Tolosaldea betidanik izan da bertsozalea», dio ▶ 5



Felix Irazustabarrena Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzen taldean aritu da urtebetez. N. URBIZU



I. TERRADILLOS

Eskualdeko ekonomia indartzeko pausoak

TOLOSALDEA ▶ Unai Andueza Tolosaldea Garatzeneko teknikari berriak «enprekin harremana sendotzeko» egingo du lan; 'Tolosaldeko Enpresen Gida' kalean da ▶ 2

LEITZA ▶

Astlehenean ekingo diote kiroldegiko denboraldi berriari

Izena emateko epea oraindik irekita dago «ez baitituzte bete ikastaroen talde guztiak» ▶ 7

TOLOSA ▶

Bonberenea musika doinuek beteko dute

Urrian ekitaldi ugari antolatu dituzte ▶ 3

XABIER ZABALA ▶ HAITZETAN RAJUKO KIDEA

«Zazpi lurraldeak ukituko ditugu antolatu ditugun mendi irteeretan»

Bai Euskal Herriari taldearekin batera, «Euskal Herria ezagutzea» dute xede ▶ 6



A. IMAZ

KALE KANTOITIK ▶ JOXEMI SAIZAR

Etorkinak, udazkena, neskak eta Zinemaldia

Adingabeko etorkinen Sevendenea zentroaren kontrako lehen aholkisa entzun ditugu publikoki udazken hasiera honetan Tolosan. Itxiera eskatu idatzia kaleratu dute inguruko bizilagun eta lantegiek. Istiluak, beldurra eta arazoak aipatzen dituzte. Alderdi politiko batzuk ere hitz egin dute gaiaz Batzar Nagusietan. Eta bertako langileak ere kezka dira. Orain gazteak (denak mutilak) beste leku batzuetara bidali behar dituzte denboraldi baterako, etxea berri bitartean. Konponbi-

dea zaila dela argi dago, baina haien integrazioa bada helburua, ez al litzateke hobe talde txikiagoekin banatzea?

Alde Zaharreko dendariak indartsu ari dira elkartu direnetik. 20 denda berri irekitzeko omen dira. Ondo etorriko dira Alde Zaharrari bizia emateko. Biharko Udazken festa (Udaberrikoa Inauterien mozorro gisa erabili zuten aspaldi) antolatu dute: txarangak, erraldoi eta buruhandiak, dultzaineroak, aforia... Ez dugu aitzakia handirik behar festa egiteko. EUSTAT edo nahi duena

animatuko nuke estatistika egitera: urtean zenbat asteberu dugu festarik gabe? %10a?

TAKeko neska arraunlariek ere bere festa izango dute bihar, kostaldeko lehiakideak gonbidatuz. Indarrean dauden seinale. Futbolariak ordea, une txarra ari dira pasatzen. Hegoalde areto futbol taldea desagertu egin da, urte asko areto futboleko maila gorenean aritu ondoren. Nekea, jende falta, laguntza eza?

Donostiako Zinemaldiak zerikusirik

ba al du gure eskualdearekin? Gutxi, baina beti aurkitzen da zerbait. Eburne Ormazabal tolosarra da ekitaldi nagusietako aurkezlea. Richard Gere-ren ondoan denbora gehien pasatu zuen pertsona izan zela aterata da paperetan. *Dos rivales casi iguales* filmeko irudi batzuk Tolosako zezen plazan hartuak dira, herriko extra ugariarekin. Lucio igeltsero-faltsifikatzaile anarkista nafarraren dokumental gomendagarrian Banco de Tolosa zeneko Donostiako sukurtsala agertzen da fotograma batean. Aitor Vitoria tolosarra *La sombra de nadie* filmaren zuzendari laguntzaile izan da eta Anjel Alkain asteasuarra *Eutsi* filmeko protagonista.

EKONOMIA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

«Eskualdeko industria eta ekonomiarik bultzada emateko helburuarekin» pauso berri bat egin berri du Tolosaldea Garatzen garapen agentziak. Bate-tik, *Tolosaldeko Enpresen Gida* prestatu du, eta bestetik, agentzian lan egingo duen teknikari berria aurkeztu du, Unai Andueza, hain zuzen.

Atzo eginiko aurkezpenean, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak gogoratu zuen hauteskunde kanpainan guztiak azpimarratu zutela industriari izan behar duela eskualdeko motorra, eta hori lortzeko lanean ari direla esan zuen. «Enpresen formazioa, oreka, prozedurak hobetzea da gure asmoa, horrela, hauei hazten eta konpetitiboagoak izaten lagunduko baitugu». Halaber, hutsune handia somatzen zutela administrazioa eta enpresen artean gehitu zuen alkateak, eta hori konpontze aldera beharrezko ikusi zutela teknikari berri bat izatea hori guztia kudeatzeko.

Hain zuzen ere, hori izango da Unai Andueza eskualdeko garapen agentziako teknikari berriaren lana. «enpresatik enpresara joan, bakoitza ondo ezagutu, dituzten beharrak eta eskariak jakin, hauei erakundeetan dagoenaren berri eman, eta era berean, erakundeek eskualdeko enpresen inguruko egoera azaldu». Horretaz gain, Jose Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaileak garrantzia eman zion foro bat sortzeari. «Erakunde desberdinekin eta enpresek in foro bat sortu nahi dugu, harremanak sendotzea izango da helburua, eta horrela jakingo dugu zer eskatzen duten enpresek eta guk gure aldetik zer eman ahalko dugun».

Goi mailako ingeniari industriala da Unai Andueza tekni-

Eskualdeko enpresekin harremana sendotzea, hurrengo erronka

Unai Andueza Tolosaldea Garatzeneko teknikari berriak enpresek dituzten beharrak eta eskariak aztertuko ditu



Jose Luis Urdangarin, Jokin Bildarratz eta Unai Andueza, atzo, aurkezpen ekitaldian. I. TERRADILLOS

kari berria. Lanari ekiteko «gogotsu» azaldu zen, eta eskerriak eman nahi izan zizkion garapen agentziri beragan jarritako konfidantzagatik. Eskualdeko enpresa guztien beharrak entzuteko zabalik egongo dela esan zuen Anduezak.

Gida berria

1991. urtean kaleratu zuten azken enpresen azken gida, eta horregatik Tolosaldea Garatzeneko beharrezkoa ikusi du *Tolo-*

saldeko Enpresen Gida egitea. Ia 1.000 enpresez osatutako gida da, eta helburua («enpresen kokalekuari buruzko informazio argia eta eguneratua aurkeztea, industria horiek garatzen dituzten jarduerak zehaztea eta eurekin harremanetan jartzeko modua eraztea da»). Enpresa industriak, lehen sektorekoak eta enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresak sartu dituzte bertan. «Autonomoak, esaterako ez ditugu sartu, izan ere, beste

gida bat ateratzeko adina badaudela esan behar da», azaltzen du Jose Luis Urdangarin. Garapen agentziaren historia eta helburuak zehaztu ostean, enpresa bakoitzaren datuak zehazten ditu —koka-gunearen arabera, jardueraren arabera edota ordena alfabetikoaren arabera—, eta ondoren, eskualdeko industria-gune guztien planoak azaltzen da, eta gero industriagune bakoitza zehazten duten planoak jarri dituzte.

HEZIKETA ▶

Haurren heziketari buruz, bilera, gaur

Haurren heziketari buruz hitz egiteko, bilera egingo dute hainbat familiek gaur, 17:30ean, Kultur Etxean. Haurraren bizi prozesua errespetatzen duen heziketaren inguruan hitz egitea dute helburu bilera-topaketa horiek eta hileroko behin elkartzea aurreikusten dute. Gai hauetan interesa duen edonorrentzat zabaldu dute bilera deialdia.

EUSKARA ▶

Aitzolen 25 urteak argazkietan

Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urtemuga dela eta, Kultur Astea antolatu zuten pasa den astean, eta egitararen baitan, erakusketa bat jarri zuten 25 urteetan zehar bildutako argazkiekin eta materialarekin. Erakusketa hau aste honetan ere ikusgai dago, goizez nahiz arratsaldean.

ZINEMA ▶

'La jungla 4.0' eta 'Ratatouille' asteberuan

La jungla 4.0 filma izango da ikusgai Leidor aretoan, gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, etzi 19:30ean eta astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30ean. Bestalde, gaztetxoek ere izango dute filma, *Ratatouille*, hain zuzen ere. Bihar eta etzi, 17:00etan emango dute pelikula Leidorren.

GIZARTEA ▶



Egaña eta Arzallus ariko dira bertso afarian. I. AZPILIKUETA

Udaberriren urteurrena ospatzeko, bertso afaria

Sarrerak salgai daude bihartik aurrera; Egaña eta Arzallus ariko dira urriaren 12an

ERREDAKZIOA

Udaberri dantzari taldea, bere 50. urteurrena dela eta, ospakizun ugari ari da gauzatzeko urtean zehar. Otsailean hasi zen dena, argazki erakusketa batekin; martxoan erromeriarekin jarraitu zuten eta ekainean, San Juan festan bezperan, belaunaldien egunarekin. Egun hartan egindako bazkarian 300 pertsona inguru bilduz eta aldizkari bat publikatuz. Horiek dira orain arte antolatutako ekitaldi aipagarrienak.

Orain, urrirako bi ekitaldi garrantzitsu antolatu ditu Udaberri dantza taldeak. Lehenengoa, hilaren 12an izango da, Zerkausian. Egun honetan bertso-afaria izango da, 21:15etik aurrera. Afari honetan, bi bertsolari ezagunek izango dute hitza: Andoni Egaña zarauztarrak eta Amets Arzallus hendaiarrak. Lehen bertsolariak Txapelketa Na-

gusiko lau txapel ditu dagoneko soinean, azkena 2005ean lortua. Besteak berri, 24 urterekin, bertsolariaren artean izena lortua du eta handienekin lehiatzen da. Afari honetarako sarrerak salgai ipiniko dira bihartik aurrera Tolosako hiru dendetan: Garikano, Kimetz eta Zumbel-tzen. Txartelen prezioa 20 eurokoa izango da eta gehienez 200 pertsonentzako tokia egongo da. Sarrerak erosteko azken eguna urriaren 7a izango da. Afarian, gainera, zozketa bat izango da: urriaren gauzatu den beste ekitaldiaren zuzako, urriaren 19an izango den Benito Lertxundiren kontzerturako, hain zuzen ere. Emanaldi hau Leidor antzokian izango da.

Udaberri dantza taldeko kideen esanetan, beraien helburua, «50. urteurrena ospatzeaz gain, ekitaldi hauetara ahal den jende gehiena hurbilduaraztea da».

ALDABA ▶

Asteburu honetan ospatuko dituzte jaiak

ERREDAKZIOA

Bihar ekingo diete Aldaban jaiak. Asteburu guztian zehar izango da zer gozatu bertan. Bihar, esaterako, egitarau oparoa antolatu dute. 10:30ean, txupinazioa izango da; 11:00etan, berri, meza nagusia ospatuko dute. 12:00etan,

hamaiketako prestatuko dute bertakoentzat.

Jaiak arratsaldean jarraituko du; 19:30ean, patata tortilla lehiaketa egingo dute; 21:00etan zagiardoa pilotalekuan, eta 23:30ean, Ansozregi, Larrañaga eta Lutxurdioren trikiti doinuekin erromeria izango da.

KULTURA ▶

Musikaz blai dator hurrengo hilabetea Bonbereneara

Kontzertuak, zine emanaldiak, lehiaketak eta bi argitalpen berri prestatu ditu besteak beste, Bonberenea ekintzak-ek



Gose taldearen kontzertua izango da urriaren 12an, eta 6. Skate txapelketa, 20an. HITZA/N. URBIZU

ESTI EZEIZA

Kontzertuak, erakustaldiak, txarangen kalejira eta abar prestatu dituzte Bonberenea-koek udazkeneko bigarren hilabetea alaitzeko.

Hasteko, datorren ostiralean, hilaren 5ean, Arrasaten ospatzen den Maritxu Jakoi festan izango da Bonberenea txaranga, 19:00etatik aurrera.

Musika emanaldiei dagokionean, egitarau indartsua prestatu dute datorren hilabeterako. Motorrak berotzen hasteko, datorren ostegunean, urriaren 11n, Nuuk eta No Humano taldeak izango dira 22:30etik aurrera. Hurrengo egunean, ostirala, Natural Project eta Gose ariko dira 22:30ean. Natural Project taldea Andoaindik dator beraien lana, *Decimas* izenekoa, aurkeztera, eta Gose Arrasatetik, taldearen izen bera daraman diskoarekin. Asteburu horretan bertan, igandean, zine-klubean, *007 Casino Royale* filma eskainiko dute 19:00etatik aurrera.

Hurrengo ostiralean, hau da, urriaren 19an, Golpe de Estado, Combat Rock eta Sospechosos taldeak Oñaittik datoz beraien musika eritimoak Tolosaldean ezagutaraztera. Larunbat horretan bertan hainbat ekitaldi izango dira egunean zehar. Izan ere, Bonberenea 6. Skate Txapel-

keta eta Graffiti erakustaldia antolatu dituzte. Egunari amaiera emateko berriz, HR eta Stepy Selettah-ren kontzertua izango da. HR eta Stepy Selettah, Selettah Kolektiboa eta Bad Sound System taldeko partaideak dira eta giro aparta jartzera datozte beraien eritimo eta errimarekin.

Urriaren 26an Latzen eta Gubernors izango dira Tolosan, beraien doinuekin Bonberenea astintzen. Kontzertua 22:30ean hasiko da. Hurrengo egunean, larunbatean, berriro musika izango da protagonista, Borrokan eta Hotel etorriko baitira beraien azken lanak aurkeztera. Borrokan taldea Hondarribitik dator, *Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke. Oraitxe!* izeneko argitalpenarekin. Hotel taldea berriz,

Irundik. Hauen emanaldia 22:30ean hasiko da. Hilabeteko azken ekitaldia igande horretako izango da. Zine-forumean, 19:00etan, *Jackass II* izango baita ikusgai.

Bi disko berri labean

Kontzertu, zine saio eta lehiaketez gain, bi disko berri ere argitaratuko ditu Bonberenea Ekintzak-ek datorren hilabetean. Lehendabizikoa hilaren 18an aterako da, eta Jone abeslari anoetararraren *Kateak* izango da. Hau bere bigarren lana izango da, eta hamaika kantuz osatua egongo da. Bigarren diskoa berriz, Deabruak teiltatuetan talde tolosarrarena izango da. Hauek urriaren 25ean aurkeztuko dute beraien lan berria.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ZIZURKIL ▶ KIROLAK

VI. Zaldi Lasterketa izango dute jokoan etzi Zizurkil Goian

Antolatzaileek hamabost zaldun espero dituzte, asko beste urteetan aritutakoak

IMANOL GARCIA

Jai Batzordeak antolatuta, Zizurkilgo VI. Zaldi Lasterketa jokatuko dute etzi, 18:00etan, udaletxearen ondoko belazean. Ikusle ugari erakartzen ditu ikuskizun honek. «Arrakastatsua izaten da eta jende ugari bildu ohi da zaldi lasterketa ikusteko», azaltzen du Aitor Sarasola, antolatzaileetako batek.

Antolatzaileek hamabost parte-hartzaile inguru espero dituzte, horietatik bost emakumezkoak. Eskualdeko zaldunek ere parte hartuko dute lasterketan. Iazko irabazlea izan zen Josu Kastañaresek elgoi-bartarrak ere aurten parte hartuko du. «Aurreko asteburuan Aizarnazabalaren jokatu zuten beste zaldi lasterketa bat eta lau bat zaldunek lehia estua izan zuten», dio Sarasolak. «Igdanean Zizurkilen ere lehia estua izango dute».

Sari nagusia jasotzeko talde horretan izango da Kastañares ere. Baina, esan bezala, ez da faborito argirik izango eta horrek interesa gehitzen dio probari. Bestalde, aipatzekoa da gero eta emakume gehia-



laz jende ugari joan zen zaldi lasterketa ikustera. I. GARCIA

gok parte hartzen dutela lasterketa hauetan. Lehengo urtean hiruk hartu zuten parte eta aurten bosten partaidetza espero dute.

Proba erakargarria

Zizurkilgo lasterketaren ibilbidea oso azkarra da. 350 metro ditu eta aldapa txiki bat. Ibilbidea elipsi formakoa da eta

bihurguneak oso azkarrak dira. Horrek guztiak oso erakargarria egiten du ikuslearentzat, zaldia abiadura handia hartzen duelako. Zaldunek ere gustukoa dute Zizurkilgo ibilbidea.

Bost itzuli ematen zaizkio ibilbideari lasterketa proba bakoitzeko. 3 txanda egingo dituzte eta bakoitzean bost zaldik hartuko dute parte. Txanda ba-

koitzean lehen bi postuetan gelditzen direnak finalera pasako dira. Horrela, finalean sei zaldi ariko dira lehian.

Sariei dagokionez, lehenengoak 300 euro jasoko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak 100 euro. Parte-hartzaile guztiak izango dute dieta eta gutxienez 50 euro jasoko dituzte lasterketan parte hartzeagatik.

IRURA ▶

Hainbat ikastaro egiteko aukera herrian bertan

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu herrian bertan egiteko. Mantenu gimnastika, aerobik, antzerkia, eskulanak, ziri-enkajea eta egur taila dira egin daitezkeen ikastaroak.

Mantenu gimnastika astelehen eta ostegunean 17:00etatik 18:00etara egingo dute eta helduentzat izango da. Aerobik goizez (09:00-10:00) eta arratsaldez (15:15-16:15) egin daiteke, astelehen, asteazken eta ostiralean, eta 16 urtetik gorakoentzat da. Antzerkia ostegunean 18:00etatik aurrera egingo dute, zortzi urtetik gorakoei zuzenduta. Eskulanak, asteartean, 16:00etatik 19:00etara, heldu zein haurrentzat (zazpi urtetik gorakoentzat). Ziri-enkajea, astelehenetan, 16:00etatik aurrera eta helduentzat. Egur taila asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara, eta 12 urtetik gorakoentzat.

Interesatua dagoenak udaletxean eman dezake izena urriaren 5a baino lehenago. Bestalde, Udaletik gogorarazi nahi dute, haurrek pilota eta euskal dantzak ikastaroetan parte hartzeko aukera dutela herrian bertan.

AMASA-VILLABONA ▶

Behar-Zanako pilotariak bi partida dituzte gaur etxean

ERREDAKZIOA

Behar-Zanako pilotariak hirugarren jardunaldia izango dute asteburu honetan. Etxean bi partida jokatuko dituzte. Amasako pilotalekuan izango dira, gaur, 21:15ean.

Partidak Eskuz Binakako Gipuzkoako Txapelketaren baitan izango dira. Kadete mailan Behar-Zanako Iraola eta Otaegi bikoteak Zarautzeko taldea izango du aurrean. Senior mailan Behar-Zanako Lizaso eta Altunak osatutako bikoteak Tolosako eta Biegiango Aurrera Saiaz eskolakoen aurka ariko dira.

IRURA ▶ JAIK

San Miguel jaien bigarren asteburuari heltzeko prest

ERREDAKZIOA

Irurako San Miguel jaien bigarren asteburuari ekingo diote gaur arratsaldean. Gaurko ekitaldi nagusietako bat Play Back Jaialdia izango da, jende ugari elkartzeko. Bihar San Miguel Eguna da eta beste ekitaldien artean parrokia eraberrituaren inaugurazio ofiziala egingo da, meza nagusiarekin batera. Igandekoa izango da festen azken eguna. Bikoteen eguna izendatu dute eta besteak beste, dantza-soka eta bazkaria izango dituzte. Haurrek, egunero bezala, izango dituzten beraiantzako ekitaldiak.

Bestalde, gogoratu festetan hainbat txosna jarri dituztela: Irurako Ikastolarena, euskal preso aldeko txosna eta Txolarrer Irratia eta Irurako Gazte Asanbladarena.

EGITARAUA ▶

IRAILAK 28, GAUR

18:00. Irurako Pilota Eskolako haurren arteko xare eta pala partidak trinketeen.

19:30. Kalejira Loatzo Musika eskolako trikitilariak eta buruhaundi eta erraldoiekin.

Ondoren, txistor-jatea Share Elkartearen atarian.

22:30. Play Back jaialdia frontoian.

24:00. Rock kontzertua San Miguel Plazan Nekro taldearekin. Ondoren gau-pasa izotz taldearekin.

IRAILAK 29, BIHAR

San Miguel Eguna

09:00. Txistularien goiz eresia.

11:00. Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokian eta

berritze-lanen inaugurazioa.

Ondoren dantzari txikien saioa eta herri-hamaiketako Mikel Mendizabal eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

17:30. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia plazan.

18:30. Los Cinco Bilbainos taldearekin, kantu herrikoiak eta bilbainadak plazan.

20:00. Rio Samba Show talde brasildararekin kalejira animatua plazatik aterata.

23:00. Alurr dantza-taldearen emanaldia plazan. Eurria eginez gero frontoian izango da.

00:30. Gau pasa Trikidantz taldearekin plazan.

IRAILAK 30, ETZI

Bikoteen Eguna

10:30. Haur parkea

Labaderoako plazan. Eurria eginez gero frontoian antolatuko dute.

11:00. Meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokian.

13:30. Bikoteen dantza-soka plazan.

14:30. Bikoteen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren musika dantzagarria zuzenean Olatz Korta eta Xavier Zubeldiarekin.

17:30. Haurrentzako herrikiroletako jokuak Zurgai taldearen eskutik plazan. Eurria eginez gero frontoian.

19:30. Kanpanolue kale-antzerki musikatua plazan.

20:30. Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

24:00. Herrensugea erretzea plazatik abiatuta.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri taldeen partidak

ERREDAKZIOA

Gaur eta bihar Zazpi-Iturri eta Aurrera-Saiazek jokatu-ko dituzten partidak honakoak izango dira: Zazpi-Iturri Alkizan gaur 18:00etan, eta 21:00etan Tolosako Beotibarren Aurrera-Saiazen kontra, gazteen artekoan. Bigarrena Aurrera-Saiaz Añorgaren aurka eta azkenik Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri, seniorren artekoan.

Bihar, berriz, Amezetan Lagunak aurka ariko dira, 16:00etan, eta gero, Bergararen aurka. Amezetarrak azkenekoan Behar-zanaren kontra ariko dira.

Beotibarko biharkoak

Aurrera-Saiazen biharkoak Beotibarren izango dira, eta hauek dira 10:00etatik aurrerako norgehiagoka guztiak: Txapagainen aurka jubenilak, Añorgaren aurka eta azkenik Ozkarbiren kontrakoan seniorrak izango dira.

IKAZTEGIETA ▶

Kilometroak 2007ra joateko autobusa

Urriaren 7an Bergarako Kilometroak 2007ra joateko interesea duten guztiori jakinarazten zaie, nahikoa jende apuntatzen bada, hau da, gutxienez 22 lagun, autobusa antolatuko dutela ikaztegietatik hara joateko. Izena Udal bulegoetan eman behar da, urriaren 3a baino lehen. Prezioa 5 eurokoa da.

AMEZKETA ▶

Zaragozara urriaren 12an joateko bidaia

Urriaren 12rako Amezketatik, Joxe Mari Goikoetxeak Zaragozara bidaia antolatu du. Horretarako, autobusean joateko interesea duenak Goikoetxeari deitu behar dio (630 85 55 00). Gonbidapena Goierrikoei, Tolosaldekoei eta Donostialdekoei egin zaie. Informazio gehiago emantolatzaileak emango du.

FELIX IRAZUSTABARRENA ▶ GIPUZKOAKO BERTSOZALEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Parte-hartze handia dago aurten, baina kantitatea baino kalitatea dago»

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzen talde lanean aritu da urtebetez, baina ez da egiten duten lan bakarra

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa abian da: Felix Irazustabarrenak (Alegia, 1961), Gipuzkoako Bertsozaleen Elkartearen lehendakaria, hurbilagotik, bertatik ikusten du bertsolaritza: haren osasuna, egoera eta norabidea, alegia. *G Puntua*, hainbat interpretazio izan ditzakeen leloa aukeratu dute. Asteburu honetan eskualdeko bertsolariak hasiko dira parte hartzen. Final-laurdenetan, berriz, hiru daude.

Aurten Tolosaldeko lagun asko dabilta txapelketan.

Bai, 9 bertsolari, hiru epaile eta bi gai-jartzaile daude. Presentzia handia dago. Gai-jartzaileen artean Alegiko Iker Iriarte eta Leitzaoko Unai Elizasu. Epaile lanetan, berriz, ni neu, eta Villabonako Urtzi Basterrika eta Zigor Leunda. Bertsolariak, Amaia Agirre, Aritz Garin, Iñigo Gorostazu, Bixente Gorostidi, Beñat Iguaran, Jexux Mari Iruña, Aitor mendiluze, Unai Muñoa eta Arkaitz Zelaia dira.

Tolosaldean bertsolaritza sendo dago. Zergatik?

Tolosaldea betidanik izan da bertsozalea. Euskararekin lotura handia izan du beti, errazagoa da orduan, eta tradizio aldetik beti egon dira bertsolariak, eta orduan transmisio naturala eman da beti. Klasetan ere bertsolaritza ematen da.

Eta bertsolaritza orokorrean? Oraindik hutsuneak daude, noski. Tolosa bera oraindik indartu daiteke, ez da Hernaniko edo Oiartzungo eskolen mailakoa, nolabait esatearren. Ez da



N. URBIZU

erreferentea. Ari den zer bait da, ez dauka indarririk, baina hori ziklo bat da, eta eskoletan orain indartzen hasi da bertsolaritza; irakasten da, bertso eskolak ere daude (Alegian, Asteasun, Zizurkil...). Aukerak ikasteko, behintzat, badaude.

Zazpi urtez lehendakari. Zer moduz?

Gustura. Zeregin asko dago oraindik, esan bezala, Tolosa erreferente izatea lortu behar da. Baina lanpostu honen atzean talde handia dago; hala ikusi da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzeke orduan: jende oso ona dago. Egia esan, oso aberatsa da lantalde honetan lan egitea, eta asko ikasten da.

Nola ikusten duzu aurtengo Gipuzkoako Txapelketa?

Aurten lehia estua egongo dela ikusten dut. Gehienak ezagutzen ditut eta maila ona erakutsiko dutela, hori seguru. Hala ere, faktore asko hartu behar dira kontuan: zortea, eguna bera, gaia... Parte-hartze handia dago, guztira 79, baina kantitatea baino, kalitatea dago.

Helburuen artean Gipuzkoako Txapelketa antolatzea zen.

Gipuzkoako zuzendaritzaren egitekoa izan zen talde antolatzailerak osatzea. Osatu genuen uda aurretik, eta duela urtebete, epaimahaiak, deialdiak eta herriak lotzen hasi ginen. Udalekin, babesleekin ere harremanetan jarri ginen. Lan guztia talde lanean egin dugu: bage-

ASTE BURUKOAK ▶

BIHAR

Eguna. Hilak 29.
Ordua. 18:00etan.
Tokia. Usurbilen, Sutegi Kultur Etxean.
Bertsolariak. Unai Muñoa (Berrobi) eta Iñigo Gorostazu (Berastegi).

ETZI

Eguna. Hilak 30.
Ordua. 18:00etan.
Tokia. Zumarraga-Urretxun, Zelai Aritzin.
Bertsolariak. Beñat Iguaran (Villabona) eta Aritz Garin (Zizurkil).

nekien zer zetorkigun gainera eta aldeaz aurretik prestatu genuen dena.

Epaile lanetan aritzeko zein irizpide jarraitzen dituzue?

Normalean antolatzaile taldeak proposatzen ditu batzuk, edo galdetu egiten du bertso eskoletan. Beraiekin jartzen gara harremanetan; beste batzuk ere ibili izan dira epaile lanetan. Ikastaro moduko bat egiten da, azalpenak emateko eta abar. Han jada ikusi egiten da zein egon daitekeen prest. Probak ere egin izan dira... Norbere buruak ere badauki prest dagoen edo ez.

Bertsozale Elkarteak bazkide izateak zein abantaila ditu?

Oraindik ere egin daiteke bazkide. Komunikabideen aldetik txapelketak duen arrakasta aprobetxatzen dugu elkarteak egiten duen lana gogoratzeke. Sarrerak merkeago daude, kulturetzaren jarduerak batean parte hartzeke aukera dago, euskararen alde egiten du, transmisioa lantzen du... Bertsolaritzara inguratzen denak aukera hori izan dezake (www.bertsozale.com).

Faboritorik baduzu?

Epailea izanik ez dut uste aproposa denik esatea... Bederatzi horietatik hiru finalean dira dagoeneko, bestela ere, atzetik datozenek borrokatuko dute.

Baina txapela Tolosaldean geratu daiteke?

Bai, noski baietz.

kalitatea elkarlana lehiakortasuna balio erantsia erantzukizun soziala

Bai Euskarari Ziurtagiria

ziurtagiriaren elkartea
www.baieuskarari.org 902 430026

laguntzailea: hitza

XABIER ZABALA ▶ HAITZETAN RAJUKO KIDEA

«Urte guztirako antolatu ditugu mendi irteerak zazpi lurraldeak ukituz»

Ibarrako Hartzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek «Euskal Herria ezagutzeko» mendi irteerak antolatu dituzte

ASIER IMAZ

Hartzetan Raju mendi taldeak eta Bai Euskal Herriari-k, mendi irteera egitarau oparoa aurkeztu dute. Xabier Zabala (Oartzun, 1975) Ibarren bizi den Hartzetan Rajuko kidea da.

Zel in helbururekin aurkeztu dituzue mendi irteerak?

Bai Euskal Herriari taldekoak etorri zitzaizkigun, elkarlanean urtean zehar zazpi mendi irteera antolatzeko ideiarekin. Hitz egin genuen eta Hartzetan Raju ere indar piska bat emateko ona zela iruditu zitzaigun, aurrera joatea erabaki genuen. Helburuari dagokionez, zazpi lurraldeak ukitzea gustatuko litzaiguke, Euskal Herria ezagutzeko eta lurraldetasuna sustatzeko. Horretaz gain, denborarekin mendi irteera egin behar dugun lekuko jendearekin harremanak izan nahiko genituzke, beraien parte-hartzea bultzatuz.

Lehen irteera orain dela bi aste egin zenuten, uste baino jende gehiago elkartu zitzaizuen gainera.

Ez genuen batere propagandarik egin, denborarik ere ez genuelako. Hitzan bakarrik azaldu zen ostiralean, beste guztia lagunen arteko ahoz-ahokoaren bidez zabaldu genuen, baina astebeteko tartean. Hala eta guztiz ere, 19 lagun azaldu ziren. Jendearen erantzuna nahi dugu eta lehendabiziko erantzuna oso ona izan da.

Lapurdira irten zineten.

Getaritik Hendaiara joan ginen oinez. 11:30ak inguruan irten



A. IMAZ

ginen eta 17:30ean amaitu genuen. Lasaitasunez, 5 orduko ibilbidea 6 orduan egin genuen. Atsedena ederrak hartu genituen, itsasoan sartu-aterak egiteko aukera eskaintzen zuen eguraldia aprobetxatuz. Erritmoa jendeak jartzea nahi dugu eta horrela izan zen. Urtebeteko haur batetatik hasi eta 60 urtetako mendizalerairekin taldea osatu genuen.

Era guztietako jendea?

Bai. Gutxi ibiltzen dena edo ibiltzen ez denak ez du inongo arazorik. Mendira joateko ohitura dutenek ere aukera bikaina dute.

Bigarren irteera Xiberura izango da.

Urriaren 28an izango da baina egun bat lehenago joateko asmoa dugu. Autoz bertara joan eta 4 edo 5 orduko ibilaldia egunean bertan egitea, gogorregia dela iruditzen zaigu. Horregatik aterpetxe batean lo egiteko asmoa dugu larunbatean. Izena emateko zerrendak jarriko ditugu Tolosako Denak tabernan eta Ibarro Zubiaurren. Aldez aurretik izena ematea garrantzitsua da, aterpetxean lo egiteko zenbat garen jakiteko. Hala eta guztiz ere, furgonetan lo egin edo igandean bertara joan nahi duenak libre izango du. Mendi irteera Kakueta inguruan izango da, hau da, Larraine aldean.

IBARRA ▶ DANTZA



Alurr dantza taldeak bihar Iruran eskainiko du emanaldia. HITZA

Uda «gogorra» igaro du Alurr dantza taldeak

A. IMAZ

Alurr dantza taldeak Irurako jaietan emanaldia eskainiko du bihar 23:00etan. Herriko plazan, Edu Muruamendi irakasle eta koreografoak landutako dantzak izango dira Alurren ordubeteko emanaldien ardatz. Bertan, taldeko 50 dantzari eta 11 musikaririk hartuko dute parte.

Emanaldiz emanaldi

Ez dira musika talde ospetsu bateko partaideak, baina udarra emanaldiz emanaldi igaro

dute Alurr-kideek, egin berri duten liburua ahaztu gabe. Euskal dantzak Europan barrena zabaltzeaz gain, etxeko konpromisoak ere ez dituzte ahaztu. Gauzak horrela, Koinbra (Portugal) edo Alemanian dantza egiteaz gain, Ezpeleta (Lapurdi), Alegia, Berastegi, Gaztelu, Irura eta Ibarren ere «saltoka» ibili dira.

Dantzari Txiki Egunean, Alurreko haurrek Iruran parte hartu zuten. Biharko emanaldian helduek ere izerdia bota beharko dute. Eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan izango da emanaldia.

OSASUNA ▶

Gripearen aurkako txertoa ibarraldean

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina abiarazi dute, urriaren 31ra arte. Lizartza eta Berastegin egunero jar daiteke. Ibarren ordua hartzea komenigarria da.

IBARRA ▶

Gaztetxean antzerkia gaur 22:00etan

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Txirene antzerki taldearen *Ogiyik karri etzun semia* ikuskizuna, doan ikusteko aukera egongo da gaur 22:00etan Gaztetxean.

iragarki laburrak ▶

LANA

Monitorea. Asteasuko kiroldegia Aerobic monitorea behar du. 639 96 70 75.

Tabernaria. Amasako Iturri-Goxo jatebete tabernari bat behar dugu arratsaldeetarako. 943 69 12 10.

Sukaldaria. Larraulgo aterpetxerako sukaldaria behar da. 943 31 14 74.

SALGAI

Ehiza. Uxo eta birigarro postua saltzen da Otzaurten. Hiru eskopeta, denboraldi osoa edo zatika. 639 18 23 10.

Estetika. Estetikako aparagailuak: Solarium horizontala; ilea behin betirako ezabatzea eta kamila. 660 05 76 05. 16:00etatik 20:00etara.



Jai zoriontsuak pasa!

ikastolako tabernan elkar ikusiko dugu

San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74



- iturgintza
- berokuntza
- aire egokitu
- gasa
- inst. industrialak

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808

LEITZA ▶ KIROLAK

Kirol ikastaroen denboraldia astelehenean hasi eta maiatzaren 31n amaituko da

Maria Zabaleta kiroldegiko arduradunak adierazi duenez, «oraindik talde guztiak osatu gabe daude eta izena emateko epea astelehenean amaitzen da»



Yoga, pilates, mantentze-gimnastika eta horrelakoak gela honetan emanen dituzte. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

2007-2008 denboraldiko kirol ikastaroak hastear daude dagoeneko Leitzako kiroldegian, izan ere, datorren astelehenean aurrera ikastaro guztiak hasiko baitira.

Eskaintza zabala da eta orotara 13 ikastaro antolatuta ditzu-

te: aerobika, aerofitness-a, step-a, batuka, pilates-a, mantentze-gimnastika, yoga, haurren gimnastika, karatea, multikirolak, gazteentzako muskulazio gidatua, eta tai-chi-a. Hori bai, Maria Zabaleta kiroldegiko arduradunak azaldu duen bezala, «taldeak osatzea ezinbestekoa da ikastaro-

ak aurrera eraman ahal izateko».

Irakasleei dagokienez, best diru urte osoan zehar lanean ariko direnak: Migelxo Saralegi, Arantxi Sukunza, Jon Casares, Xabier Arrizurieta eta Gema Urdaniz, eta guztien artean, taldeak osatuz gero, ikastaro guztiak emanen dituzte.

Mieltxo Saralegi muskulazio gidatua eta mantentze-gimnastika emanen ditu, Arantxi Sukunzak multikirolak, Jon Casaresek tai-chi-a, Xabier Arrizurietak karatea eta Gema Urdanizek aerobika, aerofitness-a, batuka, pilates-a eta step-a.

Maria Zabaletak adierazi duenez, «eskaintza zabala da eta adin guztientzako jendearrentzat pentsatua, aurten, esaterako, haurrentzako multikirolak taldea osatu da, eta lehenengo urtean ez». 68 dira oraingoz izena eman duten herritarrak.

«Lehenengo urtean arrakastarik gehien mantentze-gimnasiak eta pilatesek izan zuten. Aurten oraindik ez dakigu zer gertatuko den. Pilatesen, adibidez, 3 orduko daude, baina 3 talde osatzeko behar adina jendeke izena ematen ez badu, 2 talde egonen dira, edo beharbada, bakarra, eta denen artean era-

bakiko dute zein den denentzat ordutegirik egokiena». Orokorrean talde guztiak osatzeko, gazteentzako muskulazio gidatua izan ezik, 10 pertsona ezinbestekoak dira. Hortik aurrera, ikastaroek ez dute mugarik, nahi adina jendeke parte har dezakeela esan nahi du horrek, pilates, gazteentzako muskulazio gidatua eta haurren gimnasia izan ezik. Pilatesen 15 pertsona onartuko dira gehienez, haurren gimnasia 20 eta gazteentzako muskulazio gidatua, 10.

Iaz, 134 erabiltzaile

Lehenengo urtean 134 pertsona izan ziren kirol ikastaroetan parte hartu zutenak, eta aurten oraindik 68 besterik ez egon arren, jendeak «azkeneko unerarte» itxaroten duela adierazi du Zabaletak. «Hurrengo astean, astelehenean aurrera ikastaroak hasiko dira, horregatik lehenbailehen jendeke izena ematea nahiko genuke, baina badakigu jendea askotan berandu ibiltzen dela».

Ikastaroak urriaren 1ean hasi eta datorren urteko maiatzaren 31n amaituko dira. 2 lauhilekotan banatuta dago: lehenengo otsailera arte izanen da eta bigarrena, maiatzera arte. Herritarrek ikasturte osoa egin nahi izanez gero, 2 kuota ordaindu beharko dituzte, bat orain eta bestea otsailen.

2007/2008. IKASTURTEKO KIROL IKASTAROK ▶ LEITZAKO KIROLDEGIA

Leitzako kiroldegiko ikastaroak 2 lauhilekotan banatuta daude, lehenengo kuota otsaila arte izanen da, eta bigarrena, otsailetik maiatza arte. Ikastaroetan taldeak osatzeko gutxienez 10 pertsonen izena eman beharko dute, gazteentzako muskulazio gidatua izan ezik.

ORDUTEGIAK
Aerobik. Astelehenean,

19:00etatik 19:55etara.
Aerofitness. Asteartetan 11:00etatik 11:55etara, edo 19:00etatik 19:55etara.
Step. Asteazkenetan, 19:00etatik 19:55etara.
Batuka eta GAPB. Ostegunetan, 11:00etatik 11:55etara edo 19:00etatik 19:55etara.
▶ 19 euro bazkide direnentzat, 32 euro ez direnentzat (lauhileko bakoitza).

Pilates. Astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 10:55etara, 18:00etatik 18:55etara edo 20:00etatik 20:55etara.
▶ 42 euro bazkide direnentzat, 75 euro ez direnentzat.
Mantentze-gimnastika. Astelehenean eta asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara.
▶ 38 euro/64 euro.
Yoga. Astearte eta ostegunetan 16:00etatik 17:00etara.

▶ 40 euro bazkide direnentzat, 60 euro ez direnentzat.
Haurren gimnasia. Astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara.
▶ Prezioa haur kopuruaren arabera izanen da.
Karatea. Asteazken eta ostiraletan, 18:00etatik 19:00etara.
▶ 25 bazkide direnentzat, 30 euro ez direnentzat.
Multikirolak. Astelehene eta

asteazkenetan, 16:35etik 17:35era.
▶ Prezioa haur kopuruaren arabera izanen da.
Gazteentzako muskulazio gidatua. Astelehene eta asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara.
▶ Prezioa haur kopuruaren arabera izanen da.
Tai-chi. Astelehene eta asteazkenetan, 20:00etatik 21:00etara.
▶ 42 bazkide direnentzat, 75 euro ez direnentzat.

AMEZKETA ▶

Ehunka bizilagun telefono linea gabe geratu dira

ERREDAKZIOA

Ehunka amezketar telefonoko linearik gabe geratu dira herrian, pasa den larunbatean 1.500 metro telefono haria lapurtu baitzuten. Enpresa arduraduna, Telefonica hain zuzen, lanean ari da arazoa ahalik eta

azkarren konpontze aldera. Dena den, ez dute fetxarik zehaztu, izan ere, «ez da erraza konpontzea», Telefonicako arduradunaren esanetan. Ez da eskualdean ematen den lehen kasua, izan ere, Bidegoianen ere antzeko lapurretara jazo zen abuztuaren.

HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...

Egin zaitetz harpidedun!
egunkaria + beherapenak + zozketak...

Egunkaria buzoian jasotzeko utzi atariko giltza ondorengo puntuetan:
TOLOSA
HITZaren egoitza
Araba etorb. 5 behea
LEITZA
HITZaren egoitza
Henriko plaza, 1

1.- BETE ETA ERAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea, 5 behea - 20400 TOLOSA edo Henriko plaza 1 - 37880 LEITZA. Nahitaezkoa da datu guztiak betetzea

▶ Izen-abizenak: ▶ NA:
▶ Lanbidea: ▶ Jaioteguna:
▶ Helbidea: ▶ Herria:
▶ P.K.: ▶ Tel.: ▶ mugikorra:
▶ Peletronikoa:
▶ Kontu zenbakia: □□□□□□□□□□□□□□□□

2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak: (Astelehenean 08:30-20:30 Larunbategian: 09:00-13:00)
Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01**

Mezularian 130 10199 lege Ogarria. Datu Pertsonal Baberako, horrek, jakinarazte ditzake zure datu pertsonal TOLOSA, HERIKO, HEDABIDEK, LATEK hitzezko komunikazio hurrez jasotzeko ditzake, erregulazioaren arabera berri emateko. Zure ordu dago lehenko, zuzentzeko, zuzentzeko eta hurrez jasotzeko erabakitzeko. Hala ere, zure geroz, hitzak, hitzak, TOLOSA, HERIKO, HEDABIDEK ETA ARABA etorbidea, 5 behea - 20400 Tolosa, edo Henriko plaza 1.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Hernialde. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa, 18:30ean.
Ibarra. Txirene antzerki taldeak *Ogiyik karri etzun semia* antzezlanaren aurkezpena du Ibarrao Gaztebtean 22:30etik aurrera.
Ibarra. Ion Mintegiagari ongietorria egitearekin batera, Elkartasun Eguna antolatuko dute. 19:30ean ongietorria egingo zaio eskualdeko ondoreen berriz, herri afaria burutuko da. Txartelako ohiko lekuan daude salgai.
Irua. Idoia Sanchezen ipuin kontaketa izango da 17:00etan.
Leaburu-Txarama. Emetik Bertso-Kabareta emakume bertsolarien saio esperimentalta da. askotariko emanaldia, koloretua, gordina, umoretsua eta pikantea Txaramako Osasun kultur gunean (Leaburu-Txarama). 22:00etan.
Tolosa. Gorren familiaren inguruan hitzaldia Kultur Etxean 19:00etan, Gaianditzen elkarteko antolatuta.
Villabona. Ramon Garate sendagileak hitzaldi-proiektzioa eskainiko du Biltoki elkartearen 17:00etan eta mus, tute, birnkon, selak eta eskoba txapelketen finalak, Adinakoan Astean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
Iruztun. Gastearena, M. Amaia Kalea, 4. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Urtu baino lehen... bueltan

TOLOSALEDA ▶ Dina Bilbao Beka irabazi zuten Belauntzako eta Ibarrao zazpi neska-mutilak glaziarretatik egin duten bidaiatik «oso gustura» bueltatu dira

ERREDAKZIOA

Urtu baino lehen izeneko proiektuarekin Ibarrao eta Belauntzako 17-18 urte bitarteko zazpi neska-mutil gazte irabazi zuten Dina Bilbao Beka, iragan udan. Sari honi esker eskualdeko gazte hauek Suitza aldean izan dira 10 egunetan zehar. «Bidaia ederra» izan dela azaldu dute gazteek. Berotegi efektuak eta klima aldaketak azken hamarkadetan naturan, eta, bereziki, Alpeetako glaziarretan eragindako kaltea eta atzerakada aztertzea zen euren helburua. Asmo horrekin ibili dira 10 eguneko Alpeetako glaziar ingurune ederretako batzuk ezagutzen eta klima aldaketaren eraginak aztertzen.

Gazte taldea hil honen 14an abiatu zen Tolosatik. Josu Izutuaren furgonetan bidaiatu dute zazpi gazteek (2.700 km guztira) eta bertan lo egin.

Lehenik Asier Hilario geologoaren eskutik Zumaiako flysch-ak bisitatu zuten eta han klimak historian zehar izan di-



Dina Bilbao I. Bidaia Bekaren irabazleak Aletsch glaziarrean. HITZA

tuen aldaketak ikusi ahal izan zuten. Ondoren, Tolosara itzuli eta Joaquin Araujoren hitzaldia entzun zuten; hura amaitsu orduko, Suitzarantz abiatu ziren.

Hamaika abentura

Bertan glaziar ugari bisitatze-ko aukera izan dute. Batetik, Ginebran, bertan bizi den Ikaztegietako euskaldun bat eta bere familia gidari hartuta, hiria bisitatu zuten. Bigarrenik, Mont Minen (Val d'herens) Ralph Lugon glaziologo suitzar entzutetsuak Mont Mine glaziar-

ra erakutsi zien. Alde batetik, Sion-en bertan (Valais kantoia-
 ren hiriburua) inguru osoak azken glaziazioan bizi izan zuten egoera azaldu zien. Ondoren glaziarrean bertara inguratu ziren honen atzerapena bertatik bertara ikusteko.

Halaber, Montet aterpean (Val d'Anniviers): Zinal herri-
 tik abiatu eta Gran Montet aterpe-
 pera bidean hainbat glaziar mirestu ahal izan zituzten. Hango fauna ikusteko aukera ere izan zuten (sarioak, muxarrak...).

Zermatt eta Cervino ingurua

ere ezagutu zuten: Cervino inguruan ibilaldi bat eginez Sutzako mendirik altuenak ikusteko aukera izan zuten.

Aletsch glaziarrean ere izan ziren (Alpeetako luzeena): Bettmeralp herriatik abiatuta Unesco-
 ko gizateriaren ondare izendatu duen parajeetatik ibili ziren eta Aletsch glaziarrean 23 Km luzeak eta ikusgarriak edertsi zituzten.

Azkenik, Chamonix eta Mer de Glace ere ezagutu zuten (glaziarra): Chamonix-etik abiatuta Mer de Glace glaziarra eta glaziar horretan bertan urtero zulatzen duten izotzeko kobazuloa bisitatu zituzten. Mont Blanc mendia ikusteko aukera ere izan zuten.

Behin bidaiari amaizuta, proiektuko helburuak «bete-tzat» jo dituzte eskualdeko gazteek. Euren esanetan, klima aldaketak «eragin nabarmena» izan du glaziarren atzerakada. «Oso esperientzia aber-
 rarratu dute, Dina Bilbaoren baloreak eurenganatu eta «asko ikasi» dutela.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Eguzki Arroyo Intxaurrondo (Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak printzesa. Etxekoak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

Egin zaitetz harpidedun!

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenari gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

- kanakak**: San Frantzisko, 21 • Tolosa • Tel.: 943 65 27 46
- MUGAR**: Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA • Tel.: 943 65 56 85 / Pablo Gorosabel, 26 • TOLOSA • 943 65 40 37
- horekin**: TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44 / Santa Mari plaza, 1 behea
- SHANTI KIROLAK**: Gudari kalea, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 65 04 62
- ILUMINAZIOA**: Rondilla, 11 TOLOSA • Tel.: 943 67 40 74
- Avalon**: korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02
- LIZARRIBAR OINETAKOAK**: Arostegieta kalean TOLOSA